


SOLUZIOAK AZAROA

Hona hemen azaroan Euskal Herriko herri desberdinetako umeez beraien toki aldizkarietako jolasen txokoan aurkitu dituzten jolas desberdinen soluzioak.


Bilatu beraz, guztien artean zure herriko aldizkarian proposatu zaizkizun jolasei dagozkienak eta dagoen aukera zabala ikusita, gehiagoren gogoarekin geratu bazara, zure aldizkariaren hurrengo alea iritsi bitartean jolasten jarrai dezakezu gure [jolas parkean](#).

Arrotzak Ibaietan eta erreketan aurkitu beharko ez genituzkeen elementu gehiegi dago paisaia honetan (gomazko ahatez gainera, gutxienez 16). Ikusten al dituzu?



Irudi engainariak

Hamahiru zati hauetatik zortzi goiko iruditik hartuta daude eta gainerako bostak engainariak dira, hau da, oso antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.



Pareak bai! Hemengo elementu gehienak bikoiztuta daude. Batek, ordea, ez du parearik, eta beste bat hiru aldiz ageri da. Zein da bakano eta zein hirukoiztua?



Maripurtzili ikaragarri gustatzen zaizkio tatuajeak. Hona hemen bere besoa. Egin ieazkiozu tatuajetxo batzuk.

Mezua Iruditxo bakoitza dagokion hizkiarekin ordeztu eta esaera zahar bat agertuko zaizu.

A Z A R O A H O T Z N E G U A M O T Z




Hau da HAU!

Hona hemen Maripurtzilen hatz erakuslea. Marraz ezazu zerbait, bere hatz puntan orekan, eta izan dadila ikusgarria, sekulako trebezia baitauzka.

Itzala

Ikusten duzunez, Peloziri eskolako lanak egiten ari da eta ez dago pozik. Baina hori alde batera utzita, zein ote da bere itzal zuzena?



Bota dadoa!

Zortzi dado hauek tranpati samarrak dira. Lau besterik ez datoz bat irudi zabalduarekin. Zeintzuk dira? Horrela asmatzea zaila baldin bazaizu, irudi zabaldua paper batean marraztu eta dadoa muntatu. Berehala konturatuko zara zeintzuk diren txarrak eta zeintzuk onak.

